

WATERPOLO CAMPUSA



Pase bat egiten guztiz inguratuta Campuseko partida batean.



Campuseko txikienek primeran pasatu zuten igerileku txikian.

LEHENENGO KONTAKTUA

36 hurrek zuzen-zuzen ezagutzen dute waterpoloa Lautadak antolatutako campusean

TESTUA L. DE LA TORRE
ARGAZKIAK MANUEL PRIETO

Oporrak une ona izan ohi dira kirol batzuen praktika hobetzeko edo kirol berri batekin kontaktua hartzeko. Bigarren aukera hau da Gasteizko 36 hurrek hartu dutena, apirilaren 23tik 25era arte Lautada Urpolo Taldeak ondoko ondoko seigarren urtean antolatu duen campusean parte hartuz. 6 eta 14 urte bitarteko 10 neska eta 26 mutil Mendizorrotzako igerilekura joan dira kirol honetaz zuzenean ezagutzeko eta gozatzeko, ia kasu guztietan, inoiz praktikatu ez zutena. Hiru egunetan zehar waterpoloarekiko kontaktua hartu dute eta denbora eta espazioa partekatu dituzte campusaren garapenean entitatearen teknikariei lagundu dieten klubaren neska eta mutilekin. Campus honetan parte hartu dutenak poz-pozik geratu dira eta jada haietako batzuek Lautadako waterpolo eskolara laster salto egiteko asmoa erakutsi dute. Urte honetan klub arabarrak 115 kideekin kontaktzen du eta hauetako askok waterpoloarekiko kontaktua hartu dute Lautadak 6 urtetan zehar antolatzen duen campusei esker.

Kirol hau ezagunagoa egiteko

asmoarekin eta hura praktikatzera animatzen diren pertsonak gero eta gehiago izan daitezten, Lautadak campus bat antolatuko du uztaileko lehen astean nesken zatitza soilik, waterpolo emakumezkoen hurbiltzeko asmoz, emakumezkoen kategoriarako taldeak garatzeko entitate aspalditik biziki lantzen ari den helburua, aurreko gazte eta senior kategorietan lehiatu direnak, gainera iraillean antolatuko dute udazkeneko campus mistoa, txikienek waterpolo ezagutzeko eta gozatzeko aukera berri bat.

Lautadako waterpolo Eskolak 45 umerekin kontaktzen du denboraldi honetan eta entitatearen talde federatuen harrobia da. Kirol hau ikastea, entrenatzea eta praktikatzera nahi duten 6 eta 13 urte bitarteko umei zuzenduta dago. Eskolara doazenez klubaren entrenamendu talde eta kategoria desberdinetan aurrera egiten dute bakoitzaren eboluzioaren arabera. Hastapen taldeak entrenatzen du Mendizorrotzako igerilekuan asteleneretik ostegunera, eta ostiraletan Lakua-Sansomendi Gizarte Etxean, 18:00etatik 19:00etara. Ordutegi horretan entrenatzaileak arduratzen dira, igeriketaren

WATERPOLO CAMPUSA

Poz-pozik pilotaren bila.



Atera jaurtitzeko prest.

hobetzeagatik hasiz, eta beharrezkoa bada arreta hurbila emanez, bere mailaren arabera jokalaririk hezteaz. Lautadakok, entrenatzeko 5 egun gehiegi izan daitekeela jakinda, astero gutxienez hiru egunetan entrenatzera joatea eskatzen dute. Eskolan interesatuak daudenek 625 700 883 (Pili) edo 667 556 343 (Félix) telefonoez deia dezakete, edo emaila bidali lautadaup@gmail.com helbidera.

Kimuak waterpolo txapelketa

Ekainaren 1 eta 2ko asteburuan Lautadak kimuak waterpolo txapelketa antolatzen du. Bertan Castilla-Leon Aragoi, Nafarroa eta Euskaditik etorritako ia 180 hurrek

hartuko dute parte, waterpolo eta dibertsioa batuz asteburuan Mendizorroztako igerilekuan. Urte honetan lehiaketa hau HaBaWaBa txapelketa zirkuituan bilduta dago. "Happy Baby Water Ball" esan nahi duen ingelesezko akronimoa (Pozik, Haurra, Ura, Pilota), waterpolo hedatzen eta kirolaren eta bizikidetasunaren balioak sustatzen saiatzen den ekimena. Lehen aldiz antolatua zen Italian 2008. urtean eta, egundaino, ospatu da Italian II aldiz. Ipar Amerikan lau aldiz eta hiru Grezian. HaBaWaBa-a garrantzi gehiagoko waterpolo txapelketa da kategoría hezigarrietako umeen artean.



Entrenatzailearen adierazpenak entzuten, partidaren atsedendaldi batean.



Ea nork lortzen duen pilota harrapatzeal.

@sanprudencioAD

GURE TALDEEN ORDUTEGIAK HORARIOS DE NUESTROS EQUIPOS

<p>2ª DIV MASCULINA VS DINTXE</p> <p>Sábado 18.00h Col. San Prudencio</p>	<p>JOTAKE VS SENIOR 1ª MASC</p> <p>Domingo 10.30h Pol. Ibaiondo</p>	<p>PREFERENTE VS ZARAMAGA</p> <p>Domingo 18.15h Sansomendi Nº2</p>
---	---	--